



ATZERRIKO HIZKUNTZEN PROGRAMA

2008.ko Azaroako Txostena

Erresuma Batuak derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzen ikasketarako ezartzen dituen ildoak eta gomendioak jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Hezkuntza eta Unibertsitate Sailak, Hezkuntza berrikuntzaren zuzendaritza dela medio, hezkuntza eleanitzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du. Horretarako, jarraian aurkezten ditugun ekintza eta proiektuak garatzen ari dira

- **Ingelesaren Sarrera Goiztiarra** (Haur-Hezkuntzako 2. zikloa)
- **INEBI** (Ingelesa Edukien Bitartez- Lehen Hezkuntza)
- **BHINEBI** (INEBI eta DBH)
- **Esperientzia Eleanitza** (DBH eta Batxilergoa)

Lehendabiziko hiru moduluak (ISG, INEBI eta BHINEBI) ingeleseko arloan oinarritzen dira. Ingelesa arloaren barne, beste arloetako eduki curricularrak lantzen dira (hala nola: Giza Zientziak, Natur Zientziak, Matematika, eta abar). Arlo horietako edukiak nahiz ingelesa aldi berean ikasten dira.

Azken modulan (Esperientzia eleanitzean), curriculumeko arloak osorik ingelesez edo frantsesez eskaintzen dira, atzerriko hizkuntza arloaz gain. DBH mailan, 7 ordu asteko eskaini behar dira gutxienez euskaraz eta beste 7 ordu gutxienez atzerriko hizkuntza batean. Batxilergoan, curriculumeko arloen %25a euskaraz eskaintzea ezinbestekoa da eta %20a atzerriko hizkuntzan.

Programa eleanitzaren helburua ikasleen hizkuntza konpetentziaren bilakaera bikain bat lortzea da bai euskaraz bai gazteleraz, baita atzerriko hizkuntzetako batean konpetentzia on bat lortzea ere. Helburu hau lortzeko, metodo komunikatzaile bat proposatzen da, hizkuntzaren erabilera funtzionala, hots, hizkuntza ikasketa objektu izateaz gain (arau gramatikalak, ortografia, sintaxia, eta abar) ahoz eta idatziz komunikatzeko oinarritzko tresna bezala ulertzen da, baita geure ezagutzak antolatzeko, eraikitzeko eta biltzeko ikasketa tresna bezala ere.

Jarraian ekintzen berri ematen dugu:

■ **ISG Modulua:**

Eskolen %100a ingelesari sarrera ematen diote 4 urteko gelatik hasita.

- GARATU ikastaroak eskaintzen dira 99-00 02-03 ikasturteetan prestakuntzarik jaso ez zuen irakaslego berriarentzat.
- Helburua: ziklo hauetan lan egiten duen irakaslego berriari prestakuntza eta aholkularitza eskaini.

- 99-00tik 02-03ra EEAKo 150 ikastetxeetan (gehienak publikoak) prestakuntza eskaini zen, ingelesaren sarrera goiztiarra baldintzarik hobeenetan egin zezaten. Irakasleagoak bere ordutegiaren barne (ordutegiak astean behin arratsalde bat libre izan zezaten antolatzen ziren) hamabostero antolatutako mintegietan hartzen zuen parte, eta mintegi horietan aholkularitza taldeak gelako erabilpenerako diseinatutako material didaktikoak banatzen ziren (gai curricular bati buruzko unitate didaktikoak, ingelesa tresna izanik) Maila hau amaituta, irakasleagoa gurekin lanean jarraitu du, ikuspuntu metodologiko bera lehen hezkuntzako hurrengo kurtsoetan aplikatuz (INEBI Programa). Bestalde, irakasleago berriarentzat prestakuntza eskaintza mantentzen saiatzen gara GARATU ikastaroen bitartez.
- Adin horietarako diseinatu ziren unitate didaktikoak (4 eta 5 urteko geletarako) "Dip. Dip, Dip" izenpean argitaratu ziren eta "2005.urteko hizkuntzen irakasketa eta ikasketa berrikuntzan Europar zigiluaren" saria jaso zuten.

INEBI:

- Helburua: aurreko modulua amaitu izan duten ikastetxeei jarraipena eman, Lehen Hezkuntzako 3. 4. 5. eta 6. mailetarako material curricularra sortuz. Partaide diren ikastetxe gehienak amaitu izan du prestakuntza prozesua. Ikasturte honetan zehar proiektuetako batzuk jarraipena dute berrikuntza proiektuen deialdia dela eta.
- Baldintzak bat datoz aurreko moduluko baldintzekin. Mintegiak ordutegi lektiboa barne eskaintzen dira. Zentroek materiala erosteko laguntza ekonomikoa jasotzen dute. Ez ditugu testu liburuak erabiltzen, ikasleagoa benetako materialak erabiltzen ohituz dugu helburu (kontsulta liburuak, entziklopediak, ipuinak, CD-ROMak, web orriak, eta abar) eta hauen erabilpenerako eta beharrezkoa den informazioa lortzeko ikasketarako estrategiak bultzatzen saiatzen gara (hitz jakinen bilaketa, testu moten arteko ezberdintasunak, testu baten egitura, irudien laguntzaz...) Ahozko nahiz idatzizko ekoizpena eragiten dituzten ekintzak bultzatzen ditugu hala nola, aurrez garatutako lanen ahozko aurkezpenak, landutako lanekin erlazioan dauden testu idatzien ekoizpena, eta abar. Badira sistematikoki errepikatzen diren zenbait ekintza (arruntak) hizkuntza modu erraz batetan eta dagokion testu-inguruan erabiltzea laguntzen dutenak: agurrak, lanen banaketa, materialak jasotzea, lanen aurkezpena, jokoaren arauak, eta abar.

BHINEBI:

- Helburua: abiapuntu bezala, DBHko ingeleseko irakasleagoari Lehen Hezkuntzan egiten dena ezagutarazi. Bestalde, Bigarren Hezkuntzan erabiliko den ikuspuntu metodologikoa azaldu, prestakuntza teorikoa eta praktikoa eman DBHrako bereziki diseinatutako material curricularren

bitartez, eta, irakaslegoak eguneroko praktikan dituen beharrei eta zailtasunei erantzun.

- Erabilitako metodologia bat dator Lehen Hezkuntzan erabilitako metodologiarekin. Hizkuntzak bigarren hezkuntzan duten trataerari hurbilketa jarraia ematea da helburu, askotan Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako pausoa planteamendu metodologikoen haustura bat suposatzen baitu, ikaslearen ikasketa prozesuan modu ezezkor batean eragiten duena.

ESPERIENTZIA ELEANITZA:

- 26 Ikastetxek edukiak ingelesez eskaintzen dituzte eta 10 ikastetxek frantsesez. Arloak ikastetxez ikastetxe aldatu egiten dira: Historia, Biologia, Teknologia, eta abar. Esperientzia eleanitza borondatezkoa da ikasleentzat eta ikastetxe bakoitzak erabakitzen ditu ikasleagoaren aukeraketa irizpideak.
- Helburua: prestakuntza teoriko nahiz praktikoa eta aholkularitza eskaini esperientzia piloto honetan parte hartzen duen irakaslegoari, ingelesez eman beharreko arloak eskaintzeko beharrezkoa duten materialen garapenean lagundu eta irakasleagoaren arteko koordinazioa erraztu.
- ISEI-IVEI-k (2004-2006) bi ikasturteko iraupena izan zuen ikerketa longitudinala egin zuen, honetan lehen deialdian aukeratuak izan ziren 12 ikastetxeetatik 6 ikastetxe aztertu izan ziren. Informea 2007.eko lehen hiruhilabetearen izan zen eskuragai Ikerketa honetan ingeleseko konpetentzia maila neurtzeko frogak banatu zitzaizkion DBHko lehen eta bigarren zikloko nahiz Batxilergoko ikaslegoari. Erabilitako frogak hizkuntzen irakasketarako Erreferentzia Marko Europarrak bereizitako hurrengo mailei egokitzen zaizkie: A2, B1 eta B2. Informazio zehatzago helburu eta metodologiei buruz honako ISEI-IVEI orrialde honetan aurki daiteke:

<http://www.isei-ivei.net/cast/inves/invindex.htm>

Atzerriko hizkuntzen Progaramari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Rosa Aliagari zuzendu (aliaga@donosgune.net)